

GURE KOLOREAK

- 1.- Mapa bati begira nengoen
ta hasi nintzen hausnarketan,
herrialdeak banatzen dira
kolore ezberdinetan,
zoritxarrez hau aukeratzea
ez dago gure eskuetan.
Ohartzerako mapa bustita
nuen negar malkoetan,
Euskal Herria margotu nuen
bere hiru koloretan.

- 2.- Iparraldera abiatuta
a ze toki magikoak,
edozein tokitan ezin dira
topatu horrelakoak,
Denon begitan miresgarriak
bertako etxe tipikoak,
teila gorri azpian lau horma
ta dizdira zurikoak,
dizdira horrekin margotu nitun
iparraldeko txokoak.

- 3.- Dizdira honi piztiatzar bat
itzala egiten ari da,
azken aldian izaten dute
makina bat tira-bira,
hezkuntza ta beste hainbat gauza
inposatu egin dira,
denon artean egin dezagun
soka berdinetik tira,
eta berriro lortuko dute
aurretik zuten dizdira.

- 4.- Bizkaia, Araba ta Gipuzkoa
margotzeko orlegia,
kolore honek adierazten du
esperantza ta bizia,
batera egiten ari diren
lana da aipagarria,
gutxinaka areagotuaz
lehen zuten garrantzia,
ea denboraz altxatzen duten
berriro Euskal Herria

- 5.- Gipuzkoako hiriburua
daukat aipatu beharra,
bere abestiak dion moduan
munduan baita bakarra,
bertan jaiotzea neretzako
izanda gauza earra,
bertako toki eta jendeak
ematen baitit indarra,
betirako harro egongo naiz
izateaz donostiarra.
- 6.- Nafarroa gorriz margotuta
noa lan hau bukatzera,
gorriak dira San Ferminak ta
bertan duten egoera,
jendea bultzatu behar dute
han euskaraz mintzatzera,
eta ea horrela egiten
duen egoerak hobera,
Nafarroa hau iritsi dadin
lehen zena izatera.
- 7.- Gorri da ere gure arbasoek
ixuri zuten odola,
Nafarroko erresuma zena
defendatuz hala-nola,
garai baten egin zuten lana
ezin galtzen utzi hola,
denon artean puska dezagun
itxi ziguten kaiola,
ikus dezaten ez gaituztela
geldiaraziko inola.
- 8.- Mapa gainean hiru kolore
zein baino zein politago,
baina hiru hauek elkarrekin
daudela ditut nahiago,
elkarrengandik bana ezkerro
Euskal Herria akabo,
beraz guztiak egon gaitezen
inoiz baino batuago,
anai artean lan egitea
bezalakorik ez dago.